**HITZARMENA, BIZKAIKO IKASLEEN GURASO ELKARTEARI (BIGE) DIRU LAGUNTZA EMATEKO, "BIGE, A TU SERVICIO. BIGE, ZURE ZERBITZURA" LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZAKO PROGRAMA GARATZEKO.**

Bilbon,

**PARTE-HARTZAILEAK**

Alde batetik, KOLDO NARBAIZA OLAZKOAGA jauna, Bilboko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria. Erakunde horren egoitza Bilbon dago, Venezuela plaza, 2, 6.ean (posta-kodea: 48001) eta IFZ P-4802400-D da.

Bestetik, Ana Isabel Puente Martínez andrea (NAN: 26.197.352-F), BIZKAIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAren presidentea. Elkartearen egoitza Bilboko Erronda kaleko 27an dago eta IFZ V-48157242 da.

Bildutakoek lege ahalmen eta eskumen nahikoa onartzen diote elkarri hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako,

**ADIERAZTEN DUTE:**

I.- Bilboko Udalak diru-laguntzak emateko eskumena duela, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 3.1.b) artikuluaren arabera.

**CONVENIO PARA LA SUBVENCIÓN A LA BIZKAIKO GURASOEN ELKARTEA/FEDERACIÓN DE PADRES Y MADRES DE BIZKAIA (BIGE), PARA LA REALIZACIÓN DEL PROGRAMA DE APOYO Y ASESORAMIENTO "BIGE, A TU SERVICIO. BIGE, ZURE ZERBITZURA".**

En Bilbao, a

**REUNIDOS**

DE UNA PARTE, D. KOLDO NARBAIZA OLAZKOAGA, en calidad de Concejal Delegado del Área de Euskera y Educación del Ayuntamiento de Bilbao, con domicilio en Bilbao (C.P. 48001), Plaza Venezuela, nº 2, 6º y NIF P-4802400-D

DE OTRA.-, Doña, Ana Isabel Puente Martínez con DNI 26.197.352-F, actuando como presidenta de la Federación BIZKAIKO GURASOEN ELKARTEA / FEDERACIÓN DE PADRES Y MADRES DE BIZKAIA (BIGE) NIF V-48157242 y domicilio en Bilbao, en el número 27 de la calle Ronda.

Las partes que intervienen, se reconocen recíprocamente capacidad legal y competencia suficientes para suscribir el presente convenio, por lo que

**EXPONEN**

I.- Que el Ayuntamiento de Bilbao es competente para otorgar subvenciones de acuerdo con lo dispuesto en el art. 3.1.b) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones.

II.- BIGE- Bizkaiko Ikasleen Gurasoen Elkartea, Bizkaiko ikasleen guraso-elkarteen federazioa dela. Bizkaiko unibertsitatekoak ez diren ikastetxe publikoetako ikasleen guraso-elkarteek osatuta dagoela, elkarte horiek hezkuntza-prozesuan parte hartze erabatekoaren alde dagoela eta irabazi-asmorik gabeko elkartea dela.

Hala,

**ADOSTEN DUTE**

Lankidetzako honako Hitzarmena formalizatzea. Hona hemen haren

**BALDINTZAK**

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN GAIA**

Hitzarmen honen helburua BIGE BIZKAIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAri 10.800 euroko zuzeneko diru-laguntza izenduna ematea da, Bilbon "BIGE, A TU SERVICIO. BIGE, ZURE ZERBITZURA" laguntza eta aholkularitzako programa garatzeko 2018-2019 ikasturtea hitzarmena indarrean dagoen bitartean. Hori Gurasoen Elkarteak aurkeztutako programaren (1. eranskina) eta aurrekontuaren (2. eranskina) arabera. Eranskinok hitzarmenaren zati dira eta hortaz, harekin batera sinatu behar dira.

**BIGARRENA.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Hitzarmen honetan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak agintzen du. Aipatutako legearen 22. artikuluko 2.a) atalarekin bat etorrita, hitzarmenak Bilboko Udalaren 2018ko Aurrekontuetako diru-laguntza izendunen atalean jasota dagoen zuzeneko diru-laguntza hau arautzen du.

II.- Que la BIGE-Bizkaiko Gurasoen Elkartea-, es la Federación de Asociaciones de Padres y Madres de Bizkaia, siendo una entidad sin ánimo de lucro formada por las asociaciones de padres y madres del alumnado de los centros públicos no universitarios de Bizkaia, que defiende la plena participación de las mismas en todo el proceso educativo.

Así,

**ACUERDAN**

Formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes

**CLÁUSULAS**

**PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO.**

El objeto del presente convenio es la concesión de una subvención directa nominativa de 10.800 euros a favor de la Federación BIGE BIZKAIKO GURASOEN ELKARTEA/FEDERACIÓN DE PADRES Y MADRES DE BIZKAIA, para la realización en Bilbao del programa de apoyo y asesoramiento "BIGE, A TU SERVICIO. BIGE, ZURE ZERBITZURA" a lo largo del periodo de vigencia del convenio, curso 2018-2019, según programa y presupuestos presentados por la Federación, identificados como anexos individualizados 1 y 2, respectivamente, del convenio del cual forman parte y deberán firmarse junto a él.

**SEGUNDA.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**

El presente Convenio se rige por las normas de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones. Se trata de un convenio que, de conformidad con el art. 22.2.a) de la citada Ley, regula la presente subvención directa, nominativamente prevista en los presupuestos del año 2018 del Ayuntamiento de Bilbao dentro del anexo de subvenciones nominativas.

| PEP | 2018/00107 |
|---|---|
| PEP izena | "BIGE, zure zerbitzura" |
| Onuraduna | V-48157242 BIGE |
| Organikoa | 42000 |
| Funtzionala | 32610 |
| Ekonomikoa | 48199 |
| Zenbatekoa | 10.800 |

**HIRUGARRENA.- ESPARRUA ETA BURUTZEKO EPEA**

"BIGE, a tu servicio - BIGE, zure zerbitzura" programaren barruan dauden sustapen-jarduerak, Bilboko ikastetxeetan ikasleen guraso-elkarteak egotea sustatzen duten jarduerak, burutzeari dagokion eremua baino ez da izango hitzarmenaren eremua, 2018-2019 ikasturtean zehar, 2018ko irailetik 2019ko ekainera bitartean.

**LAUGARRENA.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Diru-laguntza, 10.800 eurokoa izango da. Aldez aurretik ordainduko da, hitzarmena sinatuta eta ez da inolako bermerik jarri behar.

Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin. Diru-laguntza hau bateragarria da helburu bera duten nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edota baliabideekin. BIGEk jarduera hau finantzatzeko diren diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edota baliabideak lortu izana edo eskatu izana jakinarazi behar dute. Hori ekarpen guztien kopurua ezingo delako izan diruz lagundutako jarduerak duen kostua baino handiagoa. Handiagoa balitz, itzuli egin beharko litzateke kostu horretatik gorakoa.

| PEP | 2018/00107 |
|---|---|
| Denominación PEP | "BIGE, a tu servicio" |
| Beneficiario | V-48157242 BIGE |
| Orgánica | 42000 |
| Funcional | 32610 |
| Económica | 48199 |
| Importe | 10.800 |

**TERCERA.- ÁMBITO Y PLAZO DE EJECUCIÓN**

El ámbito de dicho Convenio comprenderá exclusivamente la realización de las actividades de promoción de la presencia de las asociaciones de padres y madres en los centros de Bilbao, enmarcadas bajo el nombre único de "BIGE a tu servicio-BIGE, zure zerbitzura", durante el curso escolar 2018-2019, de septiembre de 2018 a junio de 2019.

**CUARTA.- IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN**

El importe de la subvención se establece en 10.800 €, abonándose la misma con carácter anticipado, tras la firma del convenio y sin que sea necesaria la constitución de ningún tipo de garantía.

La presente subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, teniendo obligación BIGE de comunicar la obtención y la solicitud de las mismas que financien la presente actividad. Ello, por la razón de que el conjunto de aportaciones **en ningún caso** podrá superar el coste de la actividad subvencionada, en cuyo supuesto se procederá al reintegro correspondiente.

**BOSTGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA**

Diru-laguntza hitzarmena sinatu ondoren ordainduko da. Horretarako, ziurtatu egin da onuradunak ez daukala zorrik Bilboko Udalarekin edo beste batzuekin, zorren bat edukitzeak arriskuen jarriko lukeelako diru-laguntzaren zenbatekoaren zuzeneko ordainketa. Gainera, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, onuradunak erakutsi du ez daukala zorrik zergetan edo Gizarte Segurantzan, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluak eta Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2. artikuluak ezarritako debekuetan ez dagoela ziurtatzen duen erantzukizunezko adierazpena aurkeztu du.

**SEIGARRENA.- ZABALPENA ETA ERAKUNDEA IDENTIFIKATZEA**

Federazioak, honako hitzarmenaren edukia Bilbon dituen kideen artean ezagutarazteko konpromisoa dauka, eta baita ere, zerbitzua sustatzeko bitartekoak kideei emateko konpromisoa.

**ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA**

Onuradunak hiru hilabete dauzka diru-laguntza justifikatzeko, 2018-2019 ikasturtea amaitzen denetik (2019ko ekainaren hogeita hamarrean) aurrera zenbatuta. Justifikazioa 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluaren eta 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzei buruzko Arautegiko 72. artikuluan adierazitako eran egingo da eta hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diru-laguntza emateko baldintzak bete direla frogatzen duen memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

**QUINTA.- ABONO DE LA SUBVENCIÓN**

El abono se realizará tras la firma del presente Convenio. A tales efectos, se ha acreditado que no existen deudas del beneficiario, con el Ayuntamiento o con terceros, que puedan comprometer el abono directo del importe de la subvención al mismo. Además de lo anterior, la entidad beneficiaria ha demostrado, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y su inexistencia como deudor frente a la Seguridad Social, habiendo presentado, además, declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones a que se refiere el art. 13 de la ley General de Subvenciones, ley 38/2003, de 17 de noviembre y el art. 24.2 de la Ley 4/2005, para la igualdad de hombres y mujeres.

**SEXTA.- DIFUSIÓN E IDENTIFICACIÓN INSTITUCIONAL**

La federación se compromete a difundir el contenido del presente convenio entre sus asociados en Bilbao y facilitar a los mismos los medios para la promoción del servicio

**SÉPTIMA.- JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

La entidad beneficiaria procederá a la **justificación** de la subvención en el plazo máximo de tres meses desde la finalización del curso escolar 2018-2019, el 30 de junio de 2019. La justificación se realizará, conforme al art 30 de la mencionada ley 38/2003 y arts. 72 del Reglamento General de Subvenciones, aprobado por R.D. 887/2006, presentando:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Programaren betearazpenari dagokion gastuen eta sarreren balantzea, Udalak emandako eredua erabilita.

c) Jatorrizko dokumentuak, programa betearazteko aurreikusitako epean egindako gastuak justifikatzeko. Horretarako, hauek desberdinduko dira:

- Programaren betearazpenarekin zuzenean lotutako kostuak. Horiek osorik justifikatu beharko dira fakturekin eta balio bera daukaten agiriekin.

  Gastuak justifikatzen dituzten agirietan datu hauek jasoko dira beti:

  - Pertsona onuradunaren identifikazioa.

  - Programaren betearazpenarekin zuzeneko lotura daukan gastuaren objektuaren deskribapena.

  Era berean, justifikazio-agiriak programa horretakoak izango dira soil-soilik.

  Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsonek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

b) El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.

c) La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose, a estos efectos:

- Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente.

  Los documentos que soporten la justificación de gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

  - La identificación de la persona beneficiaria.

  - La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

  Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican.

  Con carácter excepcional, en supuestos de actividades llevadas a cabo ocasionalmente por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200 €, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Langileen gastuak justifikatzeko, nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuak: beren beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jardueraren erakunde edo pertsona onuradunari atxikiko zaizkio, kontabilitateko printzipioen eta arauen arabera, arrazoizko zatian eta betiere, kostu horiek jarduera egin den aldikoak badira. Jarduerari atxikitako kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen zenbatekoa baino handiagoa.

Justifikatzeko orduan, onartuko den zeharkako kostuen portzentajea dirulaguntza eskuratzeko eskatzaileak aitortutako aurrekontuaren berbera izango da eta justifikatutako gastu zuzenen gainean aplikatuko da.Justifikaziorik egiten ez denean, edo egindako justifikazioa nahikoa ez denean, jasotako dirukopuruak itzuli egin beharko dira. Hori horrela da Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrareko 37.1 artikuluak bere idazketa berrian ezarritakoaren arabera (Lege hori ekainaren 28ko 3/2017 Legeak aldatu du).

## ZORTZIGARRENA.- PROGRAMA ALDATZEA

Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, Bilboko Udalari eskatu behar zaio idatziz; aldaketak egiteko beren beregiko baimena eman behar du Udalak.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

- Los costes indirectos, para los que, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al 10 por ciento de los costes directos del programa subvencionado.

A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

El incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente dará lugar al reintegro de la subvención percibida, en los términos establecidos en la nueva redacción del art.37.1 , de la Ley General de Subvenciones, modificado por la Ley 3/2017, de 28 de junio.

## OCTAVA.- MODIFICACIÓN DEL PROGRAMA

Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla.

Funtsezko aldaketak egiteko eskariak arrazoiturik egongo dira eta aurrekontuan eta kronograman izango duten eragina zehaztu beharko da.

Gobernu Batzordeak Saileko ordezkaritzari eskumena ematen dio aldaketa horiek baimentzeko.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira honako hauek:

- Helburu orokorretan eta/edo zehatzetan egindakoak.
- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako bariazioak (partiden arteko aurrekontu-bariazioek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez dutenean.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea dakarrenean, Gobernu Batzordeak onartu behar ditu.

Diru-laguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituzten gainerako aldaketak justifikazioaren unean onartu ahal izango dira, betiere aldaketok onartzean beste batzuen eskubideetan kalterik egiten ez denean.

Eta ados daudela adierazteko, agiri honen ale bina sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican.

La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

Y en prueba de conformidad, los otorgantes suscriben el presente documento, en duplicado ejemplar y a un solo efecto en el lugar y fecha indicados al inicio.

**EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILA POR EL ÁREA DE EUSKERA Y EDUCACIÓN**

Firmado:
KOLDO NARBAIZA OLAZKOAGA

**BIGE ELKARTEA POR LA BIGE**

Firmado:
ANA ISABEL PUENTE MARTÍNEZ